


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Félicie Pordoy Hastoy

*Atharratze-
Sorholuze,
Zuberoa (1922)*

Aurkibidea



Biografia



Félicie Pordoy Larraine herrian sortu zen, Patxaleko etxean. Aita Jean Pordoy zen, Larraineko Athabia etxekoa eta ama, berriz, Marianne Jauregiber, Larraineko Etxegohenekoa. Féliciek anai bat zuen, sei urte zaharragoa. Féliciek bi urte zituela, familia Atharratzera joan zen bizitzera; izan ere, osaba batek, amaren anaiak, saltegia (tabako bulegoa, epizeria) arrebaren esku utzi zuen. Ondorioz, atharratzarra sentitzen da. 25 urte zituelarik, Louis Hastoyrekin ezkondu zen Félicie; Louis etxegintza enpresa baten buru zen (haren aitak sortua). Lau haur izan zituzten elgarrekin. Féliciek Atharratzeko 18 ganberako Bixta Eder hotela atxiki zuen (aurretik, amaginarrebak atxiki zuen).

Zintak

ATH-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Camus Etchecopar, Argitxu
- **Data:** 2014-07-17
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com